Bergarako Udala

GORKA ARTOLA ALBERDI Bergarako Udaleko Alkateak emandako

DEKRETUA

Obra eta Zerbitzuetako buruak, 2023KOOB0010 espedientearen baitan, honako txostena helarazi du:

"Bergarako Udalak 2023 urteko asfaltatze lanak kontratatzeko lizitazioa deitzea ezinbestekoa dela ikusita, kontratazio prozedura eta obra bera arautzeko agiriak ontzat eman eta prozedura ireki bidezko deialdia martxan jartzea onartu zuen Bergarako Udalak. Argitaratu aurretik, aurrekontu arrazoiak medio, aipatu gastua 2024 urteko aurrekontuari egoztea dagokio. Hala, obra eta prozesua bera arautzen dituzten dokumentuak zuzentzea dagokio. Kontu-hartzaileak egindako txostenean diru nahikoa dagoela ziurtatu da, eta Idazkariak ere legezkotzat jo ditu aipatu baldintza agiriak. Kontratatuko den obraren ezaugarriak honakoak dira:

- **Xedea:** 2023 urteko asfaltatze lanak
- **Kontratu mota**: Obra
- **Prozedura**: irekia, askotariko esleipen irizpideak kontuan hartuta:
    - Bermea (5 urtera arte): 25 puntura arte.
    - Prezioa: 26 puntura arte.
    - Obraren azterketa: 40 puntu arte.
        - Obraren analisia eta eraginen azterketa: 25 puntura arte.
        - Obra exekutatzeko era: 10 puntura arte.
        - Obraren antolaketa: 5 puntura arte.
    - Ingurumen irizpideak:
        - Material birziklatuen erabilera: 5 puntura arte.
        - Hondakinen kudeaketa: 4 puntura arte.
- **Aurrekontua**: 1 2220.601.153.21.01 2024 (BK 232)
- **Kontratuaren balio estimatua**: 166.767,61 euro.
- **Lizitazioko aurrekontu-oinarria:** 201.788,61 euro (%21eko BEZa barne).
- **Iraupena**: 5 aste.

Bergarako Udala

Horiek horrela,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA: 2023 urteko asfaltatze lanak kontratatzeko lizitazioa (Esp.zk.a.: 2023KOOB0010) deitzea eta horretarako planteatutako Baldintza administratibo eta teknikoak goian aipaturiko eran egokitzea eta onartzea.

BIGARRENA: 201.788,61 euro (%21eko BEZa barne) euroko gastua onartzea eta honako aurrekontu partida honi egoztea, bertan behera utzita 2023 urteko ekitaldian onartutako gastua: 1 2220.601.153.21.01 2024 (BK 232).

HIRUGARRENA: Lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratzea eta honen berri ematea Kontu-hartzaileari eta kontratazio teknikariari.

Hau da Alkateak agindu eta sinatu duena, Bergaran 2024ko otsailaren 5ean; eta nik, Idazkariak, ziurtatua.

BERGARAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERGARA
ALCALDIA
ALKATETZA